

## **07/15 IRIZPENA**

Konrado Mugertza jn.  
Gaizka Gabantxo jn.  
Javier del Campo jn.  
Iosu Gangoiti jn.  
J. Ramón Kortabitarte jn.  
Gonzalo Larruzea jn.

Eva Blanco and.  
Idazkari teknikoa.

Euskadiko Eskola Kontseiluaren Osoko Bilkuraren 2007ko urriaren 2ko saiora bazterrean aipaturako kideak joan ziren. Osoko Bilkura horrek adostasunez eman du ondoko irizpena: *EAEko ikastetxe publikoetako Bigarren Hezkuntzako, Helduen Hezkuntzako, Hizkuntza Eskola Ofiziale-tako, Erdi Mailako Musika Kontserbatorioetako eta Arte Eskoletako lan kontratuko langileen eta irakasle kidego zenbaitetako funtzionarioen lanpostu zerrendak onesten dituen dekretu proiektuari buruz.*

## **I.- AURREKARIAK**

Euskal Funtzio Publikoaren 6/1989 Legeak haxe dio 13. artikuluan: "*Euskal Administrazio Publikoek bere barne-egiturak arrazoibideratu eta eratu, langileria beharrak finkatu, lanpostuetan jarduteko eskatutako baldintzak zehaztu eta horietako bakoitza sailkatzeko baliabide dituzte lanpostu-zerrendak*". Ildo horretatik, 14.1 artikulua haxe jaso du: "*lanpostu-zerrendek aurrekontuetan diruz hornitutako lanpostu guztiak hartu beharko dituzte, funtzionarioentzat, lan-kontratupeko lanari finkoentzat eta behin-behingoentzat gordetakoak bereiziz*".

Bestalde, Irakasle Kidegoen 2/1993 Legeak lanpostu zerrendak arautu eta berauek izan behar dituzten gutxieneko edukiak zehazten ditu, eta urtarrilaren 18ko 6/2000 Dekretuak, 47/1993 Dekretua bigarrenez aldatzen duenak, berriz, lanpostuen hizkuntza eskakizunak zehazteko irizpideak eta irakasle lanpostuetako aginduzko datak arautzen ditu.

## **II.- EDUKIA:**

Dekretu proiektu honek hamar artikulua, sei xedapen gehigarri, xedapen indargabetzaile bat eta azken xedapen bat ditu. Artikuluetan aipaturiko eranskinak ere gehitu dira. Halaber, ikastetxeetako zuzendariak egindako memoria ere igorri da.

1. artikulutik 4.era, Bigarren Hezkuntzako Institutuetako eta Goi Mailako Lanbide Heziketako ikastetxeetako lanpostuak banan-banan jasotzen dira, eta zehaztu egiten da lanpostu horiek zenbat eta zein ikastetxetan diren, plazen espezialitatea eta hizkuntz eskakizuna, eta zein baldintzatan integratzen diren.

5. artikulua 2007-08 ikasturteko LPZak onartzen ditu, eta lanpostu zerrenda horiek honako irakasle hauei dagozkie: lan kontratuko irakasleak eta Bigarren Hezkuntzako Katedradunen Kidegoko funtzionarioak (A Taldea), Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Kidegoko funtzionarioak (A Taldea), Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoen Kidegoa (B Taldea), eta "desagertzeko" egoeran dauden Irakaskuntza Ertainen Institutu Teknikoetako Irakasleen Kidegoa (B Taldea). (I. eranskina).

6. artikulua, EAEko Helduen Hezkuntzako ikastetxe publikoetako Bigarren Hezkuntzako Katedradunen Kidegoko funtzionarioei (A Taldea) eta Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Kidegoari (A Taldea) dagokien 2007-08 ikasturteko LPZa onartzen du (II. eranskina).

7. artikulua, Hizkuntza Eskola Ofizialetako lan kontratuko irakasleei, Hizkuntza Eskola Ofizialetako Katedradunen Kidegoko funtzionarioei (A Taldea) eta Hizkuntza Eskola Ofizialetako Irakasleen Kidegoari (A Taldea) dagokien 2007-08 ikasturteko LPZa onartzen du (III. eranskina).

8. artikulua, EAEko Erdi Mailako Musika Kontserbatorioetako lan kontratuko irakasleei eta Musika eta Arte Eszenikoetako Irakasleen Kidegoko funtzionarioei (A Taldea) dagokien 2007-08 ikasturteko LPZa onartzen du (IV. eranskina).

9. artikulua, EAEko Arte Eskoletako lan kontratuko irakasleei, Arte Plastikotako eta Diseinuko Katedradunen Kidegoko funtzionarioei (A Taldea) eta Arte Plastikotako eta Diseinuko Irakasleen Kidegoari (A Taldea) dagokien 2007-08 ikasturteko LPZa onartzen du (V. eranskina).

10. artikulua, EAEko Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publikoetan Erlijio Katolikoa emango duten lan kontratuko irakasleei (A Taldea) dagokien 2007-08 ikasturteko LPZa onartzen du (VI. eranskina).

Lehen xedapen gehigarriak gorago aipatutako kidego bakoitzari dagozkion osagarri espezifikoen munta zehazten du. Bigarren xedapen gehigarriak, osagarri espezifikoan sartutako dedikazio bereziko osagarri bat zehazten du, irakasleek lehen gradua egiaztatuz gero jasoko dutena. Hirugarrenak tutoretza eginkizunean aritzeagatik jaso beharreko diru kopuru gehigarriaren zenbatekoa zehazten du. Laugarren xedapen gehigarriak zehazten du zuzendaritza lanetan aritzeak unibertsitatez kanpoko funtzionario irakasleen ordainsariei buruzko ekainaren 26ko 177/1990 Dekretuan zehaztutako ordainketak jasotzeko eskubidea emango duela, halaber, horien zenbatekoa ere finkatzen du.

Bosgarren xedapen gehigarriak 1. hizkuntz eskakizuneko lanpostuak derrigortasun datarik gabekoak edo gainditutako derrigortasun datakoak izan daitezkeela zehazten du, eranskinetan jasotzen den bezala; 2. hizkuntz eskakizunekoak, aldiz, atzeratutako derrigortasun datakoak edo gainditutako derrigortasun datakoak izan daitezke. Seiga-

rren xedapen gehigarriak zehazten duenez, lekualdatze-lehiaketaren bidez hornituko dira dekretu honen eranskinetan agertzen diren zerrendetako lanpostuak, lanpostu berezien kasuan izan ezik, azken hauetarako lehiaketa berezia antolatuko baita.

Xedapen indargabetzaileak indarrrik gabe uzten du urriaren 10eko 196/2006 Dekretua, aurreko ikasturteko LPZa onartzen zuena.

Azken xedapenak dekretua indarrean noiz jarriko den zehazten du.

### **III. BALORAZIOAK ETA PROPOSAMENAK**

Aztergai dugun dekretu proiektu honek aurreko ikasturteko lanpostu kopuru bera jasotzen du Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoetan, 7.160 irakasle guztira, ondoko funtzionarioen kidego eta lan kontratuko irakasle kategorietan sailkaturik:

**Bigarren Hezkuntzako Kidegoetako LPZetako plazak, lan kategorien arabera. 2006-07 eta 2007-08 ikasturteak.**

	2006-07	2007-08	Azken ikasturteko aldakuntza
Bigarren Hezkuntzako Katedradunen eta Irakasleen Kidegoak	5.725	5.739	14
Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoen Kidegoa	760	746	-14
Irakaskuntza Ertainen Insti. Teknikoetako Irakasleen Kidegoa	41	35	-6
HEOko Katedradunen eta Irakasleen Kidegoak	254	257	3
Musika eta Arte Eszenikoetako Irakasleen Kidegoa	94	94	0
Arte Plastikoetako Katedradunen eta Irakasleen Kidegoak	12	12	0
Bigarren Hezk. ikastetxeetako lan kontratuko irakasleak	219	130	-89
HEOko lan kontratuko irakasleak	9	9	0
Erdi Mailako Musika Konts. lan kontratuko irakasleak	35	35	0
Arte Eskoletako lan kontratuko irakasleak	11	11	0
Erljio Katolikoko lan kontratuko irakasleak	0	92	92
<b>GUZTIRA</b>	<b>7.160</b>	<b>7.160</b>	<b>0</b>

Aurreko urtearen aldean aldaketa nagusia Erljio Katolikoa emango duten lan kontratuko irakasleak dira. Justifikazio memorian azaltzen den bezala, “egoera administratibo berezia du eta ez dago atxikirik ikastetxe jakin bati, Lurralde Historiko bati baidarik, eta bere egitekoa ikasturte bakoitzean lurralde horretako ikastetxe batean edo gehiagotan betetzen du, ikasturte bakoitzeko beharren arabera”.

Lanpostu motaren araberako konparazioa eginez gero, ageri da curriculum aniztasuneko ikasgela kopurua handitu dela.

**Bigarren Hezkuntzako Kidegoetako LPZetako plazak, lanpostu motaren arabera. 2006-07 eta 2007-08 ikasturteak.**

	2006-07	2007-08	Azken ikas- turteko alda- kuntza	
	Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetako gela arruntetan	6.045	6.017	-28
	Curriculum Aniztasuneko geletan	258	280	22
	Zereginen Ikaskuntzako geletan	46	47	1
FUNTZI- ONARI- OAK	Helduen Hezkuntzako ikastetxeetan	123	123	0
	Urrutiko Oinarrizko Hezkuntzako ikastetxeetan	13	13	0
	Urrutiko Batxilergoko Institutuetan	41	40	-1
	Hizkuntza Eskola Ofizialetan	254	257	3
	Erdi Mailako Musika Kontserbatorioetan	94	94	0
	Arte Eskoletan	12	12	0
	Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetako gela arruntetan	129	130	1
	Hizkuntza Eskola Ofizialetan	9	9	0
LAN KONTRA- TUKOAK	Erdi Mailako Musika Kontserbatorioetan	35	35	0
	Arte Eskoletan	11	11	0
	Erljio Irakasleak	90	92	2
<b>GUZTIRA</b>	<b>7.160</b>	<b>7.160</b>	<b>0</b>	

Bigarren Hizkuntza Eskakizuneko plaza kopurua ere nabarmen gehitu da, izan ere, %62,1 izatetik %65,0 izatera igaro dira, beraz, igoera ia 3 puntukoa izan da.

Maisu-maistren kidegoko irakasleekin bete ohi ziren **DBHko 1. zikloko plazetan** Bigarren Hezkuntzako kidegoetako irakasleen kopurua asko gehitu dela nabarmendu da, arazoia LOE legearen 94. artikulua aplikazioan datza, izan ere, honek lizentziadun, ingeniari edo arkitekto titulua eskatzen du Bigarren Hezkuntzan irakasteko. Horregatik, behar-beharrezkoa da Bigarren Hezkuntzan oro har zein ikastetxe bakoitzean LPZen hezkuntza-plangintza era bateratuan egitea, eta ez zatika gaur egun egiten den moduan, lehenik DBHko 1. zikloa hartzen baita kontuan eta ondoren ikastetxeko gainerakoak.

Agerian geratu diren disfuntzioak saihesteko, DBHko plaza guztiak Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoetako LPZn jaso behar lirateke, dena dela, argi adierazi behar litzateke zenbat plaza betetzen dituzten maisu-maistrek behin-betiko eta denbora mugarik gabe. Edozein kasutan ere, behar beste plaza gorde beharko da DBHko lehen zikloko maisu-maistren mugikortasuna ziurtatzeko.

**Plantillen egonkortasunari** dagokionez, ez da egon Lan Eskaintza Publikorik kidego hauetako irakasleentzat eta horrek gora eraman du bitarteko egoeran daudenen kopurua %30eraino; edonola ere, oso urrun bilatutako %8ko helburu horretatik. Ikasturte honetarako aurreikusita dagoen LEP deialdiak 550 irakasleri emango lieke plaza finkoa.

Plaza asko “ikastetxeak berak konfiguratu beharrekoak” sailekoak dira eta hori ezeگونkortasunarekin lotutako faktorea da, izan ere, horrek esan nahi du ezin direla le-kualdatze-lehiaketara irten. Halako plazak LPZ ofizialekoen %18 dira.

**Ikastetxeak konfiguratu beharreko plazak LPZkoen aldean. 2006-07 eta 2007-08 ikasturteak.**

		2006-07	2007-08
IKASTETXEAK KONFIGURATU BEHARREKOAK	DBH	164	215
	DBHO (Ikastetxeetako Zuzendaritza)	451	490
	Lanbide Heziketa	543	468
	Ikastetxeak konfiguratu beharreko plazak guztira	1.158	1.173
Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetako LPZko plazak guztira		6.609	6.515
(%) Konfiguratu beharreko plazak / LPZko plazak guztira		17,5%	18,0%

Lehen Hezkuntzan bezala, osagarri espezifiko bat ordaintzen da tutoretza egin-kizunetan aritzeagatik, 765 eurokoa urtean. Kontseiluaren aburuz, ordainketa hau justifi-katua da aztergai dugun kasuan, izan ere, Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan irakasle guztiak espezialistak dira (gai bakarra edo gai nagusi bat ematen dute ikasle talde ba-tzuetan), hortaz, tutoreari gehitutako eginkizunek (ikasleekin, familiekin eta beste ir-a-kasleekin) lan karga handiagoa ekartzen diote.

Zuzendaritza eginkizunek ere diru pizgarriak dituzte, eta zuzendari karguaren eta zuzendaritza taldeko beste karguen arteko desberdintasunak agerikoak dira. Gaine-rako koordinazio figurek ez dute izan nabarmentzeko moduko igoerarik.

**Zuzendaritza edo koordinazio karguen osagarri espezifikoaren partearen urteko zenbatekoa. 2006-07 eta 2007-08 ikasturteak.**

<i>Azalpena</i>	<i>Ikastetxeko ikasle kopurua</i>	2006-07	2007-08	<i>Azken ikastur-teko igoera</i>
A zuzendaria	> 1.800	5.656,19	6.775,88	1.119,69
B zuzendaria	> 1.000	4.994,41	6.094,24	1.099,83
C zuzendaria	> 600	4.634,90	5.723,95	1.089,05
D zuzendaria	≤ 600	4.301,53	5.380,57	1.079,04
A zuzendaritza karguak	> 1.800	3.292,26	3.916,03	623,77
B zuzendaritza karguak	> 1.000	3.212,40	3.833,77	621,37
C zuzendaritza karguak	> 600	2.412,12	3.009,48	597,36
D zuzendaritza karguak	≤ 600	2.258,59	2.851,34	592,75
Idazkari-albokoa		1.169,40	1.204,48	35,08
Departamentu-burua		900,99	1.000,81	99,82
HHEko departamentu-burua		900,99	1.000,81	99,82
LHko eta prestakuntzako koordinatzailea		971,66	1.000,81	29,15
Kudeaketa ekonomikoaren arduraduna		971,66	1.000,81	29,15
Mantentze lanetako arduraduna		971,66	1.000,81	29,15
Kalitateko arduraduna		971,66	1.000,81	29,15

Bigarren Hezkuntzako irakasleentzat *katedradun izaera* lortzea barne promozioko elementua da. LPZko plazak kidegoen artean banakatzean ezin da bereizi zenbat diren katedradunen kidegokoak eta, beraz, ezin da jakin ea betetzen den kidego honetarako portzentaje jakin bat gordetzeko konpromisoa. Azken urteotan katedradunen kidegora sartzeko deialdirik egon ez denez, Kontseilu honek deialdi bat egin dadila eskatu nahi du.

Amaitzeko, akats bat zuzendu behar da: Laugarren Xedapen Gehigarria errepi-  
katuta dago. Bigarrenean “Bosgarren Xedapen Gehigarria” jarri behar litzateke.

Irizpen hau zure erabakiaren menpean geratzen da.

Bilbo, 2007ko urriaren 4a

IDAZKARI TEKNIKOA,

Sinaturik: Eva Blanco

Ikus-onetsia  
KONTSEILUBURUA,

Sinaturik: Konrado Mugertza

EUSKO JAURLARITZAKO HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA  
SAILBURUA.